



Ulises, James Joyce

la-ia iruzur eginda sentitu naiz. Benetan baina biguina hartu diot liburuari, gehiago atal batzuetan beste batzuetan baino; hala ere, oro har, eta batez ere “eleberrian” barneratu ahala (zeren “eleberri” bat da, ezta?), liburuari gero eta ezinikusi handiagoa hartu diot.

Nolabait esatearren, Ulises irakurtzeko ez dut “gainditu ezineko” zailtasunik topatu aurreneko 13 ataletan (eta guztira 18 atal dira). Gero, 14. atalera pasatzen zara, erudizioz beteriko zapokeria handi bat iruditu zaidana, eta jarraian, “irakur daitezkeen” beste atal batean sartzen zara, antzerti-formatuan egina (zentzugabekeriaren segidari azkena emateko-edo), hortik liburuko azken bi ataletara (17ra eta 18ra) iristen zaren arte.

Eta nik, bederen, hortxe utzi diot liburua irakurtzeari. Bi atal baino ez zitzaizkidan falta amaitzeko. Baina une horretan liburuari su eman, “selfie” bat egin eta Internetera igotzea pasatu zait burutik, James Joyce-ren jarraitzaile / aurkarien amorrurako edota gozamenerako.

Irlandar batek idatzia izateaz gain, ez dut oso ondo ulertu liburu honen merituak zeintzuk izan daitezkeen.

Oso ondo ere ez dut ulertzen Ulises zertarako ekarri duten euskarara, lehenago Melville-ren Moby Dick, esaterako, ekarri izan gabe. Moby Dick benetako eleberri klasiko bat da, artelan klasiko eta unibertsal bihurtzea xede duten obra orok eduki beharreko elementu eta ezaugarri guztiak dituena. Eta Melville literatura klasikoaren eta literatura unibertsalaren oinarritzko idazle bat da. Tamaina horretako klasiko bat itzuli eta gero, eta dauzkagun baliabideak, denbora eta egonarrria soberan edukitzera, burura dakizkigukeen xelebrekeria-mota guztiak erabaki dezakegu euskarara ekartzea, James Joyce-ren Ulises barne. Baina lehentasun batzuk finkatu beharko genituzke. Eta, noski, aurrenik, adibidez, Moby Dick doa; eta gero, nahi baduzue, doala Ulises.

Gogoratu behar da, hala ere, oraindik ezin dugula Ulises klasikoa, jatorrizkoa, greziarra, euskaraz irakurri (argitalpen moderno batean, behintzat, ez dago, Ereinek gaztetxoentzat ateratako egokitzapen polit bat kenduta). Hortaz, bi greziar obra klasiko eta miresgarriak, non azaltzen zaigun James Joycereen liburuari izena ematen dion pertsonaia, oraindik ezin ditugu euskaraz irakurri: Iliada, eta batez ere, Odisea. Horregatik, halako hots eta handitasun handiz etortzea Joyce-ren obraren euskarapena iragarri, kontuan harturik, gainera, nolako desanimoa sorrarazten duen noizean behingo irakurleen artean ez ezik, baita irakurle amorratu eta landuen artean ere, niri benetan baina ia-ia komikoa iruditzen zait.

Batzuetan, esnob taldetxo bat biltzen da eta gotorleku antzeko zerbait sortzen du, nondik lasai asko begira diezaiekeen (sorbaldaren gainetik begiratu ere, nola ez) taldeko gainerako tximinoei, zeinak orokorki besteak bezain trebeak izan ohi baitira – taldeko botere- eta hierarkia-harremanetan parte hartzeko eta inplikatzeko momentuan izan ezik.

Nire ikuspuntutik (eta mundu guztiak eskubide osoa du bere ikuspuntuak edukitzeko, jakina), James Joyce-ren Ulises artelan kaxkar bat da, ez du arimarik, liburu esnob bat baino ez da, “eruditu” hitzaren zentzurik txarrean esanda. Liburutegiko arratoi bat nobela bat idazten saiatu dela ematen du; halako batean, egilea ohartu egin da –edota besteok behintzat ohartu egin gara– ezer gutxi zeukala kontatzeko. Nire aburuz, bizipen gutxiko “idazle” horietako bat da, bizitza osoa bolizko dorretxe batean itxita igaro duena (irlandar tabernetara eginiko noizean behinkako ihesaldiak –edo ihesaldi ugariak?– kenduta).

Liburuak ez du, hortaz, emoziorik helarazten, gurutzegramako “ezagutza” baino ez du eskaintzeko, igandezaleek eta unibertsitario argiek (eta hutsek) maite ohi dituzten buruhausle-mota horietakoak ematen dituelarik emaitza gisa...

James Joyce-ren Ulises irakurtzea eta bizitza osoa irudimenik gabeko jan-neurri begano batekin pasatzea bi gauza oso antzekoak direla esango nuke: zaporegabeak, txepelak, erdipurdikoak, piperrik gabeak biak ala biak...

Ulises eleberriaren zailtasuna mundu osoan aitortuta dagoenez, euskaraz ere egoteak sekulako prestigioa dakarkio gure hizkuntzari, ordea. Horretaz ez dago dudarik. Beraz, argitalpenari ikusten diodan baliorik handiena hori dela esango nuke. Horrez gain, itzultzaileari aitortu behar zaion meritu itzela eta dakarkion sekulako ospea (bazen ospetsua lehendik, eta merezimendu osoz), hori ere kontuan hartu beharreko beste aspektu batzuk dira. Nik, egia esan, mirespen handia diot Xabier Olarrari (nire langelara etortzen bazarete, berehala topatuko dituzue Igela argialetxeak orain arte ateratako liburu guztiak, hirugarrena izan ezik, gaur egun erabat eskuraezina da eta).

Nolanahi ere, lerro hauetan itzulpenari buruz hitz egiteko asmorik ez neukan; batez ere, James Joyce-ren literatura-lanari buruz hitz egin nahi nuen, Ulises-i buruz alegia. Euskaraz irakurtzen ditudan itzulpen guztiak oso txukunak izaten dira. Beraz, erdarazko liburuekin bezala, arreta itzulpenean baino gehiago, liburuan bertan jartzen dut. Labur esanda: Ulises liburuak irakurle gisa eragin didan sentsazioa azaltzen saiatu naiz, besterik ez.

Mendebaldeko intelektual pipitsu guztiak goretsitako literatur-lan bati buruz nire iritzia azaltzeko, inorengana baimen eske joan beharrik ez izatea espero dut.

Zalantza bat datorkit burura... Euskal “inteligentsia” bera, euskaldun giro intelektuala bera alegia, hasi ote da liburutegiko arratoi autistez osatutako taldetxo bat bilakatzen, (euskal) gizartearen taupadatik eta bilakaeratik deskonektaturik, eta horrengatik, apika, hasi ote da euskaldunen etorkizunerako praktikotasun gutxiko kontuetan sartzen eta... isolatzen?

Itzulpenari dagokionez, ez dut hitzik: itzela da, miresgarria da, zotina kentzeko modukoa da, chapeau, ¡¡¡bravíííísimo!!!

Lastima da eduki aldetik horren liburu pobrea izatea. Irentsiezina ia.